


Gazteen bakardadea: bizi-unetik kronifikaziora

LABURPEN EXEKUTIBOA

BizkaiSare
Gizartea ehuntzen / Tejiendo la sociedad

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad

1 SARRERA



Nahi gabeko bakardadea gaur egungo gizarte-erronka nagusietako bat bihurtu da, osasunean, ongizate emozionalean eta gizarte-kohesioan eragin zuzena duelako. Txosten hau Bizkaiko Foru Aldundiaren BizkaiSare 2030 estrategiaren barruan kokatzen da, eta gazteen bakardadea fenomeno egiturazko eta konplexu gisa sakon aztertzeko beharrari erantzuten dio.

Azterketa hiru oinarri metodologikotan bermatzen da: nazioarteko eta estatuko literatura soziologiko espezializatuaren berrikuspena; hainbat erakundetako datu enpirikoen analisia —SoledadES Behatokia, Eusko Jaurlaritza, FOESSA, INJUVE, CIS eta EAPN—; eta Delphi azterlan bat, diziplina akademiko desberdinetako eta hirugarren sektoreko hamazazpi pertsona adituren parte-hartzearekin.

Gazteen bakardadeak hiru gaztetik bati eragiten dio, azterlan zabalenen arabera; eta haren hedadurak agerian uzten du ez dela esperientzia indibiduala edo anekdotikoa, baizik eta gaur egungo gazteen gizarte-antolamenduan, bizi-baldintzetan eta eskuragarri dituzten babes-egituretan gertatzen ari diren eraldaketa sakonen sintoma bat.

2



ESPARRU SOZIOLOGIKOA: BELAUNALDI LIKIDOA, ANOMIA ETA BAKARDADEA

Modernitate likidoa testuinguru gisa

Txostenak belaunaldi likidoaren kontzeptua erabiltzen du, arauak, erreferentziak eta bizi-ibilbideak jada argiak edo aurrei-kusgarriak ez diren ingurune batean hazten den gazteria ezaugarritzeko. Nortasun pertsonala ez dator jada familiak, lanak edo komunitateak emanda; aitzitik, pertsona bakoitzak etengabe eta bakarka eraiki behar du.

Erakunde modernoen destradizionalizazioak norbanakoari egozten dio jatorri sistemikoa duten kontraesanei aurre egiteko erantzu-kizuna. Arazo kolektiboak dilema intimo gisa bizi dira, eta zailtasun estrukturalak porrot pertsonal gisa interpretatzen dira.


Anomia estruktural iraunkorra

Soziologia klasikoak anomia —arau orien-tatzaileen gabezia— bi ordena egon-korren arteko fase iragankor gisa ulertzen zuen. Gizarte garaikideetan, ordea, iragan-kortasuna baldintza estruktural iraunkor bihurtu da. Belaunaldi likidoek ez dute trantsizioaren amaiera espero: trantsizioa bera da jada haien ohiko egoera. Baldintza horrek ondorio espezifikoak sortzen ditu gazteriarentzat: nortasun-arazoen area-gotzea, lan- eta gizarte-txertaketarako oztopo larriak, eta bakardade bat, ez norbanakoaren desbideratze gisa sortzen dena, baizik eta autonomia etengabea eskatzen duen baina autonomia hori sostengatzeko beharrezko baldintzak ematen ez dituen gizarte-esparru baten efektu erlazional gisa.

Bakardade sentitua eta sorturiko bakardadea

Txostenak bereizi egiten ditu “sentitutako bakardadea” —ondoez emozionala eta lotura esanguratsuen faltaren pertzepzioa— eta “sortutako bakardadea” —bizitzako den-borak zatitzen dituzten, harremanetarako espazioak murrizten dituzten eta existentzia-baldintzak prekarizatzen dituzten erabaki politiko, ekonomiko eta antolakuntzakoen emaitza—. Bereizketa hori funtsezkoa da esku-hartzerako: bakardadea arazo indi-bidual gisa soilik ulertzen bada, erantzunek hura pairatzen dutenak erantzule bihurtzera mugatzen dira; haren ekoizpen soziala aitortzen bada, ordea, beharrezkoa da hura sortzen duten baldintzetan jardutea.

3



GAZTETASUNA BERRIZ AZTERTU

1983an, Espainia herrialde gaztea zen: helduarorako trantsizioak bide nahiko aurreikusgarria jarraitzen zuen —ikasketak, enplegu egonkorra, emantzipazioa eta familia eratzea—. 2025ean, 15 eta 34 urte bitarteko gazteak biztanleriaren %20 baino zertxobait gehiago dira. Emantzipazioa 30 urtetik harago atzeratzen da, enplegua ezegonkorragoa da, eta jada ez dago helduarora iristeko bide bakar bat.


Gaur egungo gazteria, halaber, anitzagoa da jatorriari, ibilbideei eta identitateei dagokienez, eta aldi berean elkarri lotutako hiru krisi handiri aurre egiten die: krisi ekonomikoa —lan- eta bizitegi-prekaritatea—, krisi ekologikoa —planetaren etorkizunari buruzko ziurgabetasuna- eta krisi teknologikoa -harreman- eta komunikazio-moduen etengabeko eraldaketa—.

Txostenak proposatzen du gazteriaren kontzeptua goiko mugan 34 urtera arte zabaltzea eta beheko mugan 11 urtera jaistea, nerabezaroa aurreratu egiten baita praktika soziokulturaletan eta sarbide-moduetan. Mugaketa horrek irizpide soziologiko eta bizi-irizpideei erantzuten die, ez soilik kronologikoei.

Egoera materiala eta bakardadea

Etxebizitzarako sarbidea egiturazko botila-lepo nagusi bihurtu da. Alokairuaren kostu handiak, kontratu-segurtasunik ezak eta familiaren mendekotasunak emantzipazioa atzeratzen dute egoitzetan, eta norberaren bizi-proiektuak eraikitzeko gaitasuna mugatzen. Lan prekarietateak —soldata baxuak, ezegonkortasuna, nahi gabeko partzialtasuna— dinamika hori indartzen du.

Eusko Jaurlaritzaren Pobreziaren eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta (PGDI) 2024ren arabera, hamabost urtetik beherakoen pobrezia errealaren tasa EAEko batez bestekoaren bikoitza da. 35 urtetik beherako biztanleria pobrezian edo ongizaterik gabe dauden pertsonen guztizkoaren erdia da gutxi gorabehera. Datu horiek agerian uzten dute adin gazteenen zaurgarritasunaren kontzentrazioa estrukturala dela.



4 EBIDENTZIA ENPIRIKOAK GAZTEEN BAKARDADEAZ

Euskadi eta Espainiako datuak

2024ko Nahi Gabeko Bakardadearen Barometroaren arabera —SoledadES Behatokia—, nahi gabeko bakardadeak euskal biztanleriaren %14,5ari eragiten dio —Espainian, berriz, %20ari—. 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, tasa %29,5era igotzen da Euskadin, eta %34,6ra iristen da Espainian 18 eta 24 urte bitartekoen artean. Euskal biztanleriaren %43,9k bakardadea bizi izan du noizbait bere bizitzan, eta bakardadea pairatzen dutenen %83,4k bi urte baino gehiago daramate egoera horretan.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestak —ESCAV 2022— U formako banaketa erakusten du: bakardadearen ehunekorik handienak 15-24 urte bitartekoen artean (%7,1) eta 75 urtetik gorakoen artean (%7,4) erregistratzen dira; 15-24 urte bitarteko emakume gazteen artean, berriz, %8,9ra iristen da. Antzeko joera ageri da Gizarte Premien Inkestan ere, baina bakardade-zifra nabarmen txikiagoekin.

Babes- eta arrisku-faktoreak

Bakardadea murrizten duten faktoreak honako hauek dira: eskuragarritzat eta fidagarritzat hautematen diren familia-loturak eta adiskidetasunak izatea; komunitate-inguruneko kide izatearen sentimendua; beharrizan-egoeretan hautemandako babesa; eta norberaren agentzia-gaitasuna. Elementu erabakigarria ez da harremanen kopurua, haien kalitatea baizik: lotura nahikorik ez dagoela edo lotura horiek esanguratsuak ez direla hautemateak biderkatu egiten du bakardade-arriskua.

Arrisku-faktoreen artean daude: sare sozialen hauskortasuna edo haustura; bizi-trantsizio desegonkortzaileak —bizileku-aldaketak, lan-merkatuan sartzea—; baldintza sozioekonomiko kaltegarriak —prekaritatea, etxebizitzarako sarbide zaila—; diskriminazio- edo jazarpen-esperientziak; eta aurrez aurreko harremanen gainetik online harremanak nagusitzea.

Osasun mentala eta bakardadea

Bakardadea eta osasun mentala estuki lotuta daude. Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonek%43tik gorako bakardade-tasak dituzte Euskadin. Antsietatearen, depresioaren eta jokabide suiziden arriskuaren gorakada iraunkorra ezin da bereizi lotura egonkorrak eraikitzeko aukera mugatzen duten bizi-baldintzetatik. Harreman hori bereziki bizia da gazteen artean.

4

EBIDENTZIA ENPIRIKOAK GAZTEEN BAKARDADEAZ

Haurren pobreziatik gazteen bakardadera

Txostenak haurren pobreziatik gazteen bakardadera doan zaurgarritasun-kate metatzailea proposatzen du. Haurtzaroko desberdintasun ekonomikoa pixkanaka harreman-desberdintasunerantz mugitzen da: eskola-ingurunean (bizikidetza-arazoak, jazarpena, bazterketa), nerabezaroan (ezkutuko bakardade normalizatuak) eta gaztaroan (egiturazko bakardade kronifikatua). Integrazio formalak —ikasketak, enplegua edo familia-bizikidetza izateak— ez du bermatzen harremanen integrazioa.

5



GAZTEEN BAKARDADEAREN TIPOLOGIA ETA ESKU-HARTZEA

Bi konfigurazio nagusi

Hasierako etapetan —11-24 urte bitartean— izaera erlazional eta identitarioko bakardadea da nagusi: ez dator hainbeste harremanik ez izatetik, baizik eta loturen kalitate sinboliko eskasetik, ez egokitzearen sentipenetik, taldearen presio normatibotik eta hiperkonektibitate digitaletik. Etapa aurreratuagoetan — 25-34 urte bitartean—, berriz, izaera estruktural eta kronifikatuko bakardadea agertzen da, lan-prekaritateari, emantzipatzeko zailtasunei eta zapuztutako bizi-proiektuen metaketari lotua.

Bi konfigurazioak prozesu metagarri beraren parte dira: hasierako bakardade erlazionala egiturazko forma bihurtu daiteke, atzera egitea zailagoa duten formetara, esku hartzen ez bada. Gizarte-irudikapenak bakardadeari buruzko arreta nerabezaroan zentratzeko joera du, eta horrek ikusezin bihur ditzake gazte helduen artean agertzen diren forma egiturazkoagoak.

Hiru esku-hartze maila

Proposatutako ereduak hiru maila osagarritan egituratzen du esku-hartzea. Maila unibertsala gazteria osoari zuzenduta dago, prebentzio-helburuarekin, konexioa eta pertenentzia errazten dituzten gizarte-baldintzak sortuz. Maila selektiboa arrisku handiagoa duten taldeei zuzentzen zaie —gazte migratzaileak, LGTBI pertsonak, pobrezian dauden gazteak, desgaitasuna duten pertsonak—, egokituagoak diren esku-hartzeen bidez, hala nola espazio seguruak, mentoretza edo bitartekaritza interkulturala. Maila espezializatua zaurgarritasun handiko egoerei zuzentzen zaie —isolamendu larria, indarkeria, bazterketa—, eta banakako laguntza, esku-hartze psikosoziala eta ibilbide pertsonalizatuak eskatzen ditu.

6



JARDUNBIDE EGOKIAK

Txostenak euskal testuinguruan erreferentziazkoak diren hiru programa aztertzen ditu, denak mentorian edo lotura komunitarioan oinarrituak estrategia nagusi gisa:

- **Txinparta (Agintzari):** mentoria sozial indibiduala emantzipazio prozesuan dauden 16 eta 25 urte bitarteko gazteentzat. Sei hilabetetako asteroko topaketetan oinarritua, lotura sakon eta egonkorrak sortzen ditu gaztearen eta borondatezko aholkulariaren artean. Loturaren intentsitatean eta kalitatean du indarra.

- **Urretxindorra (SOS Gipuzkoa):** 10 eta 14 urte bitarteko haur migratzaileei zuzendutako mentoria sozial prebentiboa. Aisialdi partekatua autoestimua eta kide izatearen sentimendua bultzatzen duten konfiantzazko harremanak eraikitzeko tresna nagusia da.

- **GureArteko (Agintzari):** eredu komunitarioa eta taldekoa 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. Berdinen arteko sare naturalak sortzen ditu, "koadrilak" osatuz, eta banakako ibilbideak, talde-dinamikak eta komunitate-dinamizazioa konbinatzen ditu.

- **Gazte Solidarioak (Barakaldoko Udala):** oinarri komunitarioko udal ekimena da, 18-35 urteko gazteekin eta ikuspegi parte-hartzaile eta ziklikoa duena, aurretik zegoen kapital soziala berrerabiltzen duena eta ekintza talde kohesiora eta nahi gabe bakardadearen aurkako borrokara bideratzen duena.

Agintzariren Txinparta eta GureArteko nahiko osagarriak dira: lehenengoak harremanaren sakontasuna eta intentsitatea dakartza; bigarrenak, berriz, zabaltasuna eta komunitatearen eraikuntza. Horiek uztartuta, bakardadeari logika bikoitzetik heldu ahal zaio bakarkakoa eta kolektiboa.

7



GAZTEEN BAKARDADEA INGURUKO AGERTOKI ETA GAI NAGUSIAK

Belaunaldien arteko ikuspegia

Belaunaldien arteko analisiak erakusten du ez dagoela hainbeste belaunaldien arteko gatazka ireki bat, baizik eta egiturazko aldaketa sakonaren pertzepzio partekatu bat. Gazteek beren familien laguntza materiala jasotzen dute, baina aitorpen instituzional eta sozialaren arrakala hautematen dute. Belaunaldi helduek aitortzen dute beren ibilbideak posible izan zirela gaur egun bermatuta ez dauden baldintzei esker. Egoera horrek belaunaldien arteko bakardade-modu espezifiko bat sortzen du, eta gizarte-kontratua higatzen du.

Etorkizuneko hiru eszenatoki

Txostenak hiru agertoki posible identifikatzen ditu, hartzen diren erabaki kolektiboen arabera: egiturazko inertziaren agertokia —erreformarik gabeko jarraitutasuna, gazteen bakardadearen kronifikazioa eta normalizazioa—; erantzun konpentsatzailearen agertokia —ondorioak arintzen dituzten baina kausak eraldatzen ez dituzten neurri partzialak—; eta agertoki eraldatzailea —politika publikoen birbideratze sakona, bakardadea fenomeno egiturazko gisa aitortzea eta belaunaldien arteko itun berri bat berreraikitzea—.

Ondorioak

Gazteen bakardadea fenomeno egiturazko, erlazional eta dinamiko gisa ulertu behar da, eta ez soilik esperientzia indibidual edo emozional gisa. Gazteek dituzten loturen eta beren ongizatea, identitatea eta bizi-proiektuak sostengatzeko behar dituzten loturen arteko desoreka adierazten du. Horregatik, gizarte-kohesioaren defizitaren adierazle bat da, eta lan-prekaritatearekin, emantzipatzeko zailtasunekin, etxebizitza-arazoekin, bizi-ziurgabetasunarekin, diskriminazioarekin, pobreziarekin eta komunitate-hausturarekin lotuta dago.

Ikuspegi horretatik, gazteen bakardadea ezin zaio soilik gazteari berari edo haren harreman-gaitasunei egotzi. Sozialki eta instituzionalki sortutako isolamendu-modu gisa ere uler daiteke, autonomia blokeatzen duten, pertenentzia zailtzen duten eta lotura esanguratsuak eraikitzeko aukerak murrizten dituzten baldintzen emaitza gisa. Bereziki, gazte helduen artean, egiturazko babesgabetasunaren forma har dezake: ez da beti harreman pertsonalen falta izaten, baizik eta gizarte- eta erakunde-babesena, baita bizitza autonomoa garatzeko baldintza materialena ere. Lan-prekaritateak, etxebizitzarako sarbide-zailtasunak eta mendekotasun ekonomikoak bakardade isilago bat sortzen dute, norberaren bizi-proiektuan aurrera egiteko ezintasunari lotua.

7

GAZTEEN BAKARDADEA INGURUKO AGERTOKI ETA GAI NAGUSIAK

Fenomeno hori bizi-zikloaren ikuspegitik eta gizarte poslineal baten esparruan aztertu behar da. Helduarorako trantsizioak ez du jada nahitaez sekuentzia egonkor bat jarraitzen —ikasi, lan egin, independentzia lortu eta bizi-proiektu bat eraikitzea—; etenek, atzerapenek eta blokeoek markatutako prozesu gisa agertzen da. Zatiketa horrek lotura iraunkorrak sortzea ahultzen du, eta desorientazioa, segurtasunik eza eta geldialdi-sentsazioa eragin ditzake. Horrela, bakardadea bizi-ibilbide hauskor, etenkari eta desordenatuagoen emaitza gisa agertzen da.

Behar bezala heltzeko, ezinbestekoa da definizio operatibo partekatu bat izatea, analisia antolatzeko, datuak alderatzeko eta politika publikoak hobeto orientatzeko aukera emango duena. Definizio horrek dimentsio subjektibo bat integratu beharko luke —pertsonak bere loturak, aitorpena eta pertenentzia nola hautematen dituen—, eta dimentsio objektibo bat —sareen, babesaren, harremanetarako espazioen eta parte hartzeko aukeren benetako eskuragarritasuna—. Bi dimentsio horiek ez datoz beti bat; horregatik, komeni da bakardadea modu graduatuan eta testuinguruan kokatuta identifikatzea: arina, iragankorra, bizia edo egiturazkoa.

Neurketa-tresna egoki batek definizio hori ekintza publikorako baliagarria den ebidentziara itzuli behar du. Honako aldagai hauek jaso behar ditu: adina, generoa, egoera sozioekonomikoa, jatorria, des-gaitasuna, osasun mentala, familia-sarea, komunitate-partaidetza eta bizi-trantsizioak. Haren helburua ez litzateke soilik datuak sortzea izango, baizik eta detekzioa hobetzea, baliabideak esleitzea eta esku-hartzeak ebaluatzea. Ildo horretan, ez litzateke baztertu behar Eustaten katalogoan integratutako estatistika-eragiketa bat bultzatzeko aukera, erakundeen artean adostutako ekimen gisa ulertuta, kontuan hartuta bakardadeari buruzko azterlanak ugaritzen ari direla hainbat erakunde-, lurralde- eta gizarte-mailatan.

Detekzio goiztiarrak galdetegi laburrak, arrisku psikosozialeko adierazleak eta hurbiltasuneko behaketa profesionala uztartu behar ditu. Hezkuntza-zentroek, gazteria-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek, gizarte-zerbitzuek eta komunitate-erakundeek hainbat seinale identifika ditzakete: pixkanakako isolamendua, parte-hartze txikia, babesik eza edo ondoez emozional iraunkorra. Tresna digitalek sistema hori osa dezakete, betiere giza lotura ordezkatzen ez badute.

Erantzuna maila anitzeko eta sektore arteko gobernantzaren bidez antolatu behar da. Autonomia-mailak esparru kontzeptualak, estandarrak eta informazio partekatua definitu beharko lituzke; foru-mailak koordinazioa eta lurralde-ekitatea bermatu; eta udal-mailak eginkizun nagusia hartu beharko luke detekzioan, zuzeneko esku-

7

GAZTEEN BAKARDADEA INGURUKO AGERTOKI ETA GAI NAGUSIAK

hartzean eta komunitate-aktibazioan. Era berean, eremu akademikoak, hirugarren sektoreak eta gazteriak berak ere parte hartu behar dute.

Abordajeak integratua, moldakorra eta mailakatua izan behar du. Lehenik, oinarrizko egiturazko baldintzak bermatu behar dira: diru-sarrerak, etxebizitza, hezkuntza, enplegu duina, indarkeriaren aurreko babesa eta osasun mentalerako sarbidea. Ondoren, laguntza jarraitua eskaini behar da une kritikoetan, hala nola hezkuntza-sistematik irtetean, emantzipazioan, migrazioan, enplegurako trantsizioan, familia-hausturetan edo indarkeria-esperientzien ondorengo errekuperazioan.

Arrisku-mailaren arabera, talde-espazioak, komunitate-jarduerak, berdinen arteko laguntza, mentoretzak, hezkuntza-erreferente egonkorrak edo laguntza intentsiboa erabil daitezke. Osasun mentaleko, traumako, indarkeriako edo bullying kasuetan, esku-hartzea zerbitzu espezializatuekin koordinatu behar da. Garrantzitsua da, halaber, itxuraz integratuta dauden gazteei arreta ematea —ikasten dutenak, lan egiten dutenak edo familiarekin bizi direnak—, baina deskonexioa edo lotura esanguratsuen falta sentitzen dutenei. Kasu horietan, erantzunak prebentiboa, unibertsala eta hurbilekoa izan behar du, eta ohiko inguruneetan kokatua: hezkuntza-zentroetan, unibertsitateetan, elkarteetan, gazte-espazioetan, kirolean, kulturan eta auzoetan.

Laburbilduz, gazteen bakardadea ez da arazo indibidual edo iragankor gisa tratatu behar, baizik eta desberdintasunaren, zaurgarritasun erlazionalaren, egiturazko babesgabetasunaren eta gizarte-kohesioaren defizitaren adierazpen gisa. Haren abordajeak politika egiturazkoak, detekzio goiztiarra, laguntza pertsonalizatua, komunitate-dispositiboak eta zerbitzu espezializatuak uztartzea eskatzen du.

Gakoa ez da soilik gazteak konektatzea, baizik eta baldintza iraunkorrak sortzea, lotura esanguratsuak eraiki, aitortuak sentitu eta bizitza komun baten parte izan daitezen.